

ARGAZKI LEHIAKETA

Aretxabaletan

GAIA: KANPAI JOLEAK

OINARRIAK

1. **Gaia**

“Kanpai joleak

Lehiaketak, “Kanpai joleak” gaiarekin zerikusia duten argazki onenak saritu nahi ditu.

Parte-hartzaileak kanpaien mundura gerturatzea nahi da, kanpai joleak bilatu eta aurkitzea eta beren argazkietan haien alderik gizatiarrena erakustea, geroz eta inperpersonalagoak eta mekanikoagoak diren kanpai hotsen gainetik.

2. **Parte-hartzaileak**

Parte hartzea doakoa da.

18 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du, epaimahaikideak salbu.

3. **Lanak**

Parte hartzaile bakoitzak gehienez ere 3 lan aurkeztu ahal izango ditu, lanak originalak, argitaratu gabeak eta lehiaketetara aurkeztu gabeak izango dira

Argazkiak 2016 urtean zehar ateratakoak izango dira.

Argazkiak ezingo dira aldatu, ez elektronikoki ezta beste era batera ere. Era berean ez da fotonuntaketarik onartuko. Kolorea eta argitasuna zuzentzea soilik baimenduko da. Nolanahi ere zalantzarik sortuko balitz Raw artxiboa eskatu ahal izango zaio egileari egiaztatu ahal izateko.

4. **Aurkezpena eta bidalketa**

Argazkiak, originalak izango direnak, txuri beltzean edo koloretan aurkeztu ahal izango dira.

Argazki horien erresoluzioa 300 pp.koa (pixelak hazbeteko) izango da, 10Mbko gehienekoan.

Argazkiak e-mailez bidaliko dira (argazki bat bidalketa bakoitzeko) ondorengo helbide elektronikora: Arientzako kanpai jole eskolako kanpaijoleak@gmail.com helbideta edo Aretxabaletako Udaletxeko kultura departamenduko kultura@aretxabaleta.eus helbidera

Argazki bakoitzean jarri beharko da:

- Titulua

- Argazkia hartu zeneko lekua eta eguna
- Eskertuko da, argazkiari buruzko azalpenen bat
- Egilea: izen-abizenak, NA, helbidea, tf. eta e-maila

Parte hartzaileak datu errealak eta egiaztagarriak eman beharko ditu. Ezinbestekoak izango dira telefono zk. eta e-maila, horiexek izango baitira erakundeak erabiliko dituenak, parte hartzaileei irabazle izan direla jakinarazteko.

5. Onarpen epea

Epea 2016ko ekainaren 1etik irailaren 15era bitartekoa izango da, (biak barne). Ez da, Irailaren 15az geroztik aurkeztutako lanik onartuko.

Antolakuntzak argazki bakoitzari zenbaki bat emango dio, lehiatzeko eta epaileek identifikatzeko.

Argazki bakoitza posta elektronikoz jaso ahala, jaso izanaren mezua bidaliko zaio aurkeztu duenari. Mezuan bertan, argazkiari lehiaketan parte hartzeko eman zaion zenbakia adieraziko zaio. Argazki bat bidali ondoren erantzunik jasotzen ez bada esan nahi du antolatzailleek ez dutela argazki hori jaso eta ondorioz delako argazki horrek ez duela lehiatuko.

6. Sariak

1. SARIA: 600 € + aste buru bateko egonaldia Aretxabaletan
2. SARIA: 300 € + aste buru bateko egonaldia Aretxabaletan
3. SARIA: 100 € + aste buru bateko egonaldia Aretxabaletan

Egonaldia bi pertsonentzat eta bi gauekoa izango da eta sari banaketako egunarekin bat etorriko da. Hori horrela sari banaketa eguna sarituekin adostuko da. Nolanahi ere, urrian izango da (hilabete horretan izango baita erakusketa)

7. Epaimahaia

Epaimahaia osatu dute: Udaletxeko Kultura Departamenduko ordezkari batek, bertako argazkilari ospetsuek eta kanpaien munduarekin zerikusia duten pertsonak.

Epaimahaiak, finalista geratu diren hogeita hamar lan aukeratuko ditu erakusketa bat egiteko. Aukeraketa egiteko sorkuntza eta kalitate teknikoko irizpideak hartuko dira kontuan batetik eta argazkiek erakusten duten alderdi etnografikoa edo gizatiarra bestetik. Argazki horien artean hiru onenak aukeratuko dira eta horiek izango dira sarituak.

Lehiaketako argazkiak Aretxabaletako ARKUPE Kultur Etxeko erakusketa gelan erakutsiko dira, 2016ko urrian.

8. Epaia

Epaimahaiak urriaren 7an emango du epaiaren berri.

Antolakuntzak berarentzat gordetzen du, baldintzak betetzen ez dituzten parte hartzeak baztertzeko eskubidea

Antolakuntzak e-mail bidez edo telefonoz jakinaraziko die epaia irabazleei. Horietako norbaitekin 2 egunetako epean harremanetan jartzea ezinezkoa balitz, saria boto gehien eskuratu dituen argazkiari emango zaio.

Antolakuntzak e-mailez emango die, epaimahaiaren eta hark hartutako erabakien berri parte hartzaile guztiei.

Era berean Aretxabaletako udaleko kultura departamenduak, Debagoieneko turismo departamenduak eta Arientzako kanpai jole eskolak lehiaketaren berri emango diete komunikabideei. Gainera beren web orrialdeetan jarriko dute eta egoki irizten dioten beste edozein lekutan.

9. Sari banaketa

Sariak Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxean emango dira

Irabazleek edo haien ordeztan, beren izenean jardungo dutenek sari banaketan egon beharko dute.

10. Oharrak

Ezingo da saririk hutsik utzi.

Pertsona batek ezingo du sari bat baino gehiago eraman.

Parte hartzaile guztiek, beren argazkien irudi eskubideak emango dizkiote Aretxabaletako udaleko kultura departamenduari, Udal argazki artxiboari eta Arientzako kanpai jole eskolari; baita hautatutako argazkiak erabiltzeko, erakusteko, erreproduzitzeko eta publikoki banatzeko eskubidea ere.

Argazki horien edozein erabilera egiten denean egilearen izena aipatuko da.

Parte hartzaileek beren gain hartuko dute egile bakarrak izatearen erantzukizuna, beste hirugarren batzuen eskubiderik ez egotea eta irudi eskubideengatiko egon daitezkeen erreklamazioak, lehiaketara aurkeztu diren lanei dagokienez.

11. Oinarriak onartzea

Lehiaketan parte hartzeak oinarri guztiak eta epaimahaiaren epai apelaezina onartzea dakar berarekin.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko oro epaimahaiak berak ebatziko du.

Harremanetarako kanpaijoleak@gmail.com

ANTOLATZAILEAK

Aretxabaletako udal kultura saila

Arientzako kanpai jole eskola

LAGUNTZAILEA

Debagoieneko Mankomunitateko turismo saila.